4A-ko ikasleen aldizkaria

Antigua-luberri press

1. alea. 2019ko ekaina

ASKATASUNAREN OILATEGIA

AURKI
BIDEA

ASKATASUNA, FILOSOFIKOKI ULERTUA
Zer du filosofiak askatasunaren inguruan esateko?
4–15 ORRIAK

LIBURU ETA FILM IRUZKINAK
Udaran hondartzan irakurtzeko eta gauean lagunekin ikusteko liburu eta film sorta.
16–24 ORRIAK

ABESTI IRUZKINAK
25–33 ORRIAK
DENBORAPASA
34 ORRIAK

Irakurle agurgarri hori:

Aldizkari honen bitartez zure askatasunari buruz hausnar dezazun nahi dugu. Horretarako, gure idazle-pentsalari taldeak azken hiru hilabeteetan zehar landutako gaiak oinarri hartuz, pentsaraziko dizuten hainbat hausnarketa, elkarrizketa, testu historiko, liburu/film laburpen etb. eskaini nahi dizkizugu. Lan bilduma honetan gure askatasunari buruzo ideiak islatuko dira, baina ez hori bakarrik, hainbat pentsalari eta filosofo famatuenak ere. Aldizkariari izen hori jartzea erabaki genuen, alde batetik askatasunari buruzkoa delako eta bestalde, taldean lan egitean, lana modu zibilizatuan egitea kostatzen zaigulako; aldizkari bateko erredakzioa baino, oilategi baten itxura izan duelako, alegia. Edo beste era batera esanda, filosofiako fakultatea baino, hasierako filosofoen agoraren antza izan duelako, argudio elaboratuak oihu eta zalapartarekin nahastu direlako, ideia bikainak txisteekin nahastu direlako; finean, filosofia eguneroko kontuekin nahastu delako.

ASKATASUNA ESKUBIDE BAT DA

Ane Reparaz

Askatasuna **giza eskubide** bat da. **Funtsezko** eskubide bat.

Horregatik, garrantzi handienetako giza eskubideen artean dago sartuta. Bere garrantziaz jabetzeko esan behar da internazionalki bizitzeko eskubidea eta segurtasun pertsonalarekin bizitzeko eskubidearen ondoan kokatzen dela.

Askatasun eskubidea, 1948.urteko Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalean jasota dago.

Konkretuki, Aitorpen honen 3. Atalean jasotzen da: *"Pertsona guztiek dute bizitzeko eskubidea, askatasun eskubidea eta bere segurtasun pertsonala izateko eskubidea."*

Aitorpen Unibertsal honek sekulako indarra ematen dio bertan agertzen diren eskubideei. Adibidez, internazionalki, eskubide hauek onartzen EZ dituzten herrialdeek "gaizki ikusita" daude eta, gehienetan, ezin dira erakunde internazionaletan sartu edo erakunde horien erabakietan parte hartu.

Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalak beste ondorio garrantzitsu bat dauka, "legeen legea" baita: Estatu batek eskubide horien kontrako zerbait esaten badu, zuzenean "lege-ilegala" da eta ez dago betetzeko beharrik.

Adibidez, estatu batek horrelako lege bat aprobatzen badu, ilegala da eta bere betebeharra ezin da inposatu: "Estatu honetan ezin da erlijio *hau edo bestea* praktikatu".

Laburbilduz, II. Gerrate Mundiala eta gero ikusitako hastakeri guztien ondorioz sortu zen Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsala. Mundu guztiko ia estatu guztiak bildu ziren "legeen lege" hau egiteko, eztabaida asko eta gero. Eta, esan dugun bezala, bizitza eta segurtasunaren ondoan, **askatasuna** dago funtsezko **eskubide eta balore** bat bezala.

Askatasun eskubidea oso orokorra da, baina proiekzio konkretu asko ditu. Garrantsitzuenak hauek dira:

1. **Askatasun** geografikoa. Alde batetik bestera libreki mugitzeko eskubidea da. Nahi dudan tokian bizitzeko eskubidea dut. Honengatik, adibidez, motiborik gabeko atxiloketa bat delitu bat da.

2. Pentsamendu **askatasuna**. Guk nahi dugun guztia pentsatzeko eskubidea da.

3. Adierazpen **askatasuna**. Gure iritziak libre emateko dugun eskubidea da.

4. Erlijio **askatasuna**. Guk nahi dugun erlijioa aukeratzeko eta praktikatzeko eskubidea da.

5. **Askatasun** sexuala. Nahi ditugun erlazio sexualak izango ditugunaren eskubidea da. Arrazoi horregatik, adibidez, bortxaketa bat delitu bat da.

"L'HOMME EST CONDAMNÉ À ETRE LIBRE"

JEAN PAUL SARTRE

"GIZAKIA ASKE IZATERA KONDENATUA DAGO."

Nor zen Jean Paul Sartre?

Jean Paul Sartre frantziar filosofo, idazle eta aktibista politiko bat izan zen, existentzialismoari buruz hitz egin zuen lehenengoetarikoa. Txikitan aita hil zitzaion; horregatik amak eta aitona-amonek hezi zuten. Sartrek nobel saria irabazi zuen baina ez zuen onartu literatura sailekoa zelakoa. Bere familia ez zen nobel saridun lehena izan, bere aitonak nobel saria irabazi baitzuen ere bakearen sailean. Sartreren emaztea ere filosofoa izan zen eta emakumearen eta gizonezkoaren berdintasuna defendatu zituen; Simone de Beauvoir. XX. mendean eta baita XXI. mendean ere, feminismoaren pentsalari handia kontsideratu izan da.



"Existentzialismoa humanismo mota bat da" izeneko testuan azaldu zuen Sartrek bere askatasunari buruzko ikuspegia

Gizakiok etorkizun bat dugu eraikitzeko. Erabakiak hartuz eraikitzen dugu etorkizuna.

Horien erantzule garela konturatzen garenean, konturatzen gara zer den gizaki izatea.

Sartrek zioen,askeak ginela, eta are gehiago, askatasun horrek babesgabe uzten gintuela. Bere liburuetako batean azaltzen du zergatik sentitzen gare babesgabe: "Gizakiok etorkizun bat dugu eraikitzeko. Erabakiak hartuz eraikitzen dugu etorkizuna. Horien erantzule garela konturatzen garenean, konturatzen gara zer den gizaki izatea. Eta kasu horretan bakarrik, hau da, erabakiak hartzen ditugula eta gure erantzukizun direla ohartzean, babesgabe sentitzen gara. Argiago ulertuko da adibide bat emanez.

Behin ikasle bat etorri zitzaidan aholku eske. Egoera honako hau zen: aita amarekin borrokatu

zen politika kontuengatik, eta ordutik, aitak ihes egin eta ama lur jota geratu zen. Beste alde batetik, bere anaia nagusia gerrara joana zen eta gerran hil zuten. Horregatik, ikasleak anaiaren heriotzagatik mendeku hartu nahi zuen.

Ama atsekabeturik bizi zen aitarekin izandako liskarrarengatik eta batez ere seme nagusiaren galeragatik. Egoera zail horren aurrean, ikaslea amarekin bizitzera joatea erabaki zuen.

Agerikoa den moduan, bizirik zuen semea zen jarraitzeko adorea ematen zion arrazoibide bakarra. Gauzak horrela, bi aukera zituen: alde batetik, anaiaren heriotzat mendeku hartzea bere herrialdeko soldaduekin batu eta gerrara joanez, ama abandonatuz. Beste aukera amarekin geratu eta bere ezinegona arintzen saiatzea zen. Bazekien amaren sostengu bakarra bera zela eta anaiaren pausu berdinak jarraitzeak (agian gerran hil zitekeen) amaren bihotza zartatuko zuela. Halaber, bazekien ere, amaren alboan geratzeak ondorio zuzena zuela (amak

aurrera egitea), eta gerrara joateko ekintzak, ordea, ez zuela anaiaren mendeku gosea zertan asetu; agian Argeliara bidaliko baitzuten idazkari lanetara. Hortaz, ikaslea bi ekintza desberdin egin zitzakeen, bi erabaki desberdin: bata zehatza, berehalakoa eta izaki bakar bati onura ekarriko liokeena; bestea, aldiz, onura kolektiboa ekarriko lukeena, epe luzerakoa eta anbiguoa.

Ekintza bat ala bestea aukeratu beharra zuen; baina ez zen erabakitzen ausartzen. Hasieran pentsatu zuen moral kristauean aurki zezakeela erantzuna. Baina laster konturatu zen okerraz.

Izan ere, doktrina kristauak dio: "izan eskuzabalak, maitatu hurkoa, sakrifikatu zaitezte besteagatik, aukeratu biderik zuzenena, etc. Baina, norekin izan eskuzabalak: amarekin ala aberriarekin? Norengatik sakrifikatu: amarengatik ala herriarengatik? Nola laguntzen dut

hurkoa hobe: amarekin geratuz ala gure herrikideak defendatuz? Zein da erabaki zuzena?

Gero, beste filosofo baten morala jarraitzea erabaki zuen, baina arazo berdina izan zuen,

filosofoak orokortasunean hitz egiten zuelako eta ez ziolako adibide konkretuari erantzunik ematen. Azkenean irakasleari galdetu zion eta berak ere ez zion erantzun.

Adibide honek zer erakusten du, finean? Erabakiak hartzeko guztiz askeak garela, eta inork ezin duela gure partez erabakirik hartu. Horretaz jabetzeak babesgabe sentiarazten gaitu, baina aldi berean babesgabetasun eta angustia hori sentitu ezean ezingo gara askeak izan."

L'existentialisme est un humanisme. Jean Paul Sartre (modu askean moldatua)



Sartre ateoa zen eta bere pentsatzeko modua honetan oinarritzen da. Sartrek zion gizakia ez zuela inork sortu eta ez zuela berezko helburu bat, sinistunak direnak uste duten moduan; gizakiak ez du jaiotzetiko helbururik edo etorkizun markaturik. Horregatik, Sartrek uste zuen bakoitzak bere etorkizuna osatu behar zuela. Uneoro erabakiak hartuz sortzen genuela gure izaera, eta geu ginela gure erabakien erantzule bakar. Sartrek esaten zuen jaiotzatik gaudela aske izatera kondenatuta eta honek estres maila igo eta bizitza konplikatzen duela, zeren eta errazagoa da beste batek nire partez hartzea nire bizitzari dagozkion erabakiak, baina orduan ez gara askeak. Horregatik, erabaki bat gaizki hartzean, geu gara erantzule bakarrak, eta horrek, Sartreren iritziz, angustia sortzen du gizakiongan.

Ni bat nator bere pentsatzeko moduaren aspektu askotan baina ez guzti-guztian. Sartre, ni bezala, ateoa zenez gizakiaren sorreran pentsamendu berdinak ditugu baina nik bakoitzaren patuan sinesten dut. Sartreren ustez jaiotzen garenean hainbat gauzek eragina dute gugan: zer familia, herrialdea, maila ekonomikoa... Baina heldutzen garenean bakoitzak bere bizitzako aukerak hautatu ditzakeela eta inork ez diotela influentziatu zioen. Nere ustez beti egongo gara influenziatuta eta beti hautatutako aukeran beste pertsona baten iritziaren aspektu batek edo beste batek lagunduko digute.

Bukatzeko, ados nago askeak izatera kondenatuta egon garela aipatzen duen ideiarekin, baina ez aske totalarekin, gizarteak eskeintzen dizun askatasun maila murriztuarekin baizik. Gizarteak eskeintzen digun askatasuna gu kontrolatzeko erabiltzen du eta gainera kondenatuta bizi gara askatasun gutxi honen barruan.

Kondorra eta puma:

askatasun ekonomikoaren maskotak

Haizea Berrozpe

Kondor operazioa XX. mendearen bigarren erdian Hego Amerikan egindako ekonomia liberala zabaltzeko kanpaina bat izan zen, horretarako errepresio politikoa eta estatu terrorismoa bultzatuz eta hilketak eta inteligentzia operazioak eginez. Ofizialki 1975ean hasi zen ezartzen, AEBren laguntza zuten diktadore eskuindarren bidez. Programaren xedea zen Hego Amerikan errotzen ari zen pentsaera eta filosofia sozialista eta komunista erauztea, haien aurkako oposizio potentziala edota ideien gainean kontrol aktiboa ezarriz. Kondor operazioa egiteko elkarrekin aritu ziren Hego Amerikako hainbat gobernu, Txile, Argentina, Brasil, Paraguai, Uruguai eta Bolivia, batez ere. Kasu batzuetan Peru, Kolonbia eta Venezuelak ere lagundu zuten. Ameriketako Estatu Batuen laguntzarekin aritu ziren, 1970 eta 1980ko hamarkaden artean.

Zer egiteko prest dago gizakia Askatasun ekonomikoaren izenean?

Kanpaina honen sekretismoa zela eta, zuzenean eragindako hildakoen zenbatzea ezinezkoa da. Helburua kontrako pentsaera edo ideologiak zuten pertsonak jarraitzea, salatzea, atxilotzea ,torturatzea, herrialdez aldatzea eta desagertzea edo erailtzea ziren. Hala ere, 1992an Paraguayen "Izuaren agiritegietan" (Archivos del terror) adierazten denez, 50.000 pertsona erail zituzten, 30.000 desagertu ziren eta 400.000 gartzeleratu zituzten.

Argentinako kasua da aipagarrienetariko bat. 1976an Jorge Rafael Videla militarrak estatu kolpe baten bitartez lortu zuen boterea. Asko izan ziren desagertu ziren herritarrak, batez ere gazteak. Gazteei pentatol sodiko injekzioa jartzen zieten eta jarraian Puma hegazkin militarretan sartu eta itsasora jaurtitzen zituzten, erdi biluzik: horrela, hilketen frogak desagertu egiten ziren. Kasu honetan, askatasun ekonomikoaren izenean, pertsona asko desagertu ziren, eta egun oraindik ez dakigu non dauden gorpuak.

ASKATASUNAREN TEORIA

Eneko Gundín
Noah Gonzalez

ASKATASUNA GIZAKI GUZTIOK LORTZEN SAIATZEN GAREN ZERBAIT DA. BAINA, ZER DA ASKATASUNA?

Teoria politiko tradizionala bi askatasun mota desberdintzen ditu: kanpo askatasuna eta barne askatasuna. Kanpo askatasuna aukera kopuruarekin lotuta dago, adibidez, arratsaldea libre duzunean zerbait egiteko aukeratzea aukera askoren artean. Barne askatasuna, aldiz, zure eskura dituzun aukera zehatz batzuen artean aukeratzearekin du lotura, hau da, norberak modu independentean aukeratzeko gaitasunarekin. Gizakiak aske gara, beraz, bi zentzutan; alde batetik, ditugun aukera kopuruaren arabera; lan egiteko 10 aukera desberdin baldin baditut, 2 aukera edukitzean partez, esan dezakegu askeagoa izango naizela.

Beste alde batetik, esaten da askeak garela modu independentean erabakiak hartzeko dugun gaitasunari. Zentzu horretan, ume bat ez da askea izango, gurasoek erabakitzen dutelako bere izenean. Aldiz, heldutzen goazen heinean, erabakiak geroz eta modu autonomoagoan hartzen ditugu, eta beraz, askeagoak garela esan dezakegu.

Baina, noraino gara aske? Adibidez, kartzeletan ia ez dago kanpo askatasunik, zeren eta aukera gutxi ditugu; ate gutxiren artean erabaki dezakegu. Aldiz, esan daiteke, nolabaiteko barne askatasuna dagoela, norbere kabuz erabakitzeko gaitasuna ez delako hutseratzen. Gizartean berdina gertatzen da; arauak daude gure kanpo askatasuna mugatzen dutenak; ezin dugu nahi ditugun aukera guztiak gauzatu (adibidez, nik norbait akabatzea aukera bat da, baina hori

debekatuta dago, hau da, kanpo askatasuna mugatuta dago). Hori bakea mantentzeko egiten da nagusiki. Aldiz, barne askatasunak beste muga batzuk ditu: gaixotasun psikologikoak izan daitezke adibidez, aske pentsatzeko ahalmena urratzen dutelako.

Guztiz aske izan gaitezke?

Honek paradoxa bat sortzen du, guztiek nahi dutena egingo balute besteen askatasuna mugatuko dutelako, eta ondorioz, ez ginateke guztiz aske izango. Ordena mantentzeko zenbait arau ezartzen dira, kanpo askatasuna mugatzen dutenak. Zeren eta askatasun erabatekoak bizikidetza oztopatuko luke.

"Barne askatasuna norberak hautatzeko askatasuna da, norberarenak ez diren kausen menpekotasunik gabe, modu autonomo eta autodeterminatuan. Aldiz, kanpo askatasuna ekintza askatasuna da, aukera desberdinak eta ugariak edukitzearekin du harremana."

El nuevo coloso

No como este gigante de bronce
de la fama griega
cuyo talón conquistador
atravesó los mares.
Aquí, a las puertas del sol poniente,
batirán las olas
una mujer poderosa con una antorcha,
cuya llama
es el relámpago encarcelado,
y su nombre es
madre de los exiliados.
Su antorcha, bienvenidos al mundo;
su dulce mirada cubre
el puerto conectado por puentes colgantes
que enmarca las ciudades gemelas
"¡Guardia, Viejo Mundo,
tus esplendores de otra época!" proclama
de sus labios cerrados.
"Dame tu pobre, tu agotado,
tus innumerables masas
aspiran a vivir libres,
el rechazo de tus orillas superpobladas,
envíalos a mí, los desheredados,
que la tormenta los traiga de vuelta
¡Estoy poniendo mi luz
sobre la puerta de oro!

Gaztelaniazko itzulpenean irakur daitekeen moduan, etorkinen, behartsuen, langileen eta erbesteratuen ama da Amerika. Askatasunak ongi etorria ematen die etorkizunaren bila datozenei. Askatasunaren estatuak askatasunaren estatua irudikatzen du. Edo zuen. Egun, estatuak irudikatzen duen askatasunetik urrun ageri dira AEBtako agintariak. Trumpi gustura entzungo nioke olerki hau errezitatzen.

Historia

Askatasunaren estatua AEBen dago, New Yorken, Frédéric Auguste Bartholdi frantziarrak egin zuen munduaren askatasunaren seinaletzat, hortik bere lehen izena: “Mundua argitzen duen askatasuna”. Amerikak 1886 urtean askatasuna lortu zuelako oparitu zion estatua Frantziak. Bartholdik Bedloe uhartea aukeratu zuen garai hartan base militarra izan zelako, hiriko badiaren sarreran. Uhartea, gainera, Ellis uhartearen ondoan kokaturik zegoen, eta horrela Europako etorkinek ikusiko zuten lehen irudia izango zen Askatasunaren Estatua. Halaber, mitologia erromatarreko Libertas jainkosan inspiratu zen egiteko. Hasieran Frantzian erakusketa batzuetan erakutsi zuten eta gero desmontatu eta itsasontziz bidali zuten Estatu Batuetara.

ASKATASUNAREN ESTATUA, ASKATASUNAREN ESTATUAN

Haizea Berrozpe

Lehen esan dudan bezala, eskulturak mitologia klasikoko jainkosa baten itxura du. Buruan zazpi puntadun koroa darama, zazpi itsaso klasikoak irudikatuz. Koroan 25 leiho daude, lurrean aurkituriko gemak eta eguzkiaren izpiak sinbolizatuz. Diademak Helios jainkoaren diademaren itxura du. Eskumako besoa altxatuta dauka argi batekin, eskultura klasikoetan ezpata eramaten dutenean bezala, horrela garrantzia ematen diote argien garaiari; Beste eskuan, ordea, karpeta bat dauka Estatu Batuetako independentzia urtea zenbaki erromatarretan. Nahiz eta oinarria laukiduna izan, 11 puntako izar erregular baten itxura du, non, Emma Lazarusen, Estatu Batuetako poetaren, olerkia dago (The new Colossus). Estatua Europari begira dago.

Guztiz aske eta autonomoki hartzen ditugu erabakiak?

Pello Ibargoyen

Mundu honetan boterea da dena mugitzen duena. Hau hasiera- hasieratik gertatzen da. Gizakiak egon aurretik ere. Izaki ahulenak boteretsuenen menpe zeuden eta gaur egun botere guztia izaki batek du: gizakiak. Agian ez gara munduan dagoen izaki ugariena baina ia ziur nago positiboa edo negatiboa izan, gure eragina lurrean beste edozein izakiren gainekoa dela.

Horrez gain, gure espeziean bertan bada hierarkia bat. Anaia ertainak anaia txikien gainetik daude, anaia nagusienak ertainen gainetik daude, gurasoak (biak maila berdinean, ala ez) semea- alaben gainetik daude, gurasoen nagusiak haien gainetik daude eta gurasoen nagusiaren nagusiak oraindik gorago daude piramidean. Hori dena guztia oso ondo dago, baina zerk jartzen du pertsona bat beste baten gainetik? Ez ahal gara denok berdinak? Denok nahi duzu maila berdinean egon? Ba, dirudienez ez gara denok berdinak. Nire ustetan bizpahiru ezaugarrik bereizten gaituzte mailatan:

1. Hasteko adina eta adin horrek ematen dizun esperientzia dago, horregatik zor diegu gu baino zaharragoak direnei (nahiz eta urte pare batengatik izan) gure adinekoei baino errespetu gehiago. begirunea.
2. Bigarren ezaugarria jakinduria da, hau sartu genezake aurrekoan ere, baina bananduta jartzea nahiago nuke. Jakinduria boterea da eta hasieran esan dudan bezala boterea mundu honetan dena mugitzen duena da. Hortaz, piramidean gorago, orduan eta jakintsuago (edo horrela beharko lukeela izan iruditzen zait)
3. Hirugarren ezaugarria (nire ustez denetan eraginkorrena) dirua da. Ziurrenik denek espero duten faktorea da eta aurreko bi ezaugarriak indargabetzen dituena. Berdin du ez izatea ez heldutasunik, ez jakinduriarik, ez esperientziarik... dirua izan ezkero askoren gainetik egongo zara.

Eta nortzuk dute mundu honetan diru gehien? Hau da, nortzuk dute mundu honetan botere gehien? Multinazionalek, enpresa handiek eta gobernuak. Haiek kontrolatzen dute zer jango dugun, zer jantziko dugun, zerk entretenituko gaituen, zer irakatsiko zaigun, zer jakingo dugun... Nola? Zer jakingo dugun? Baina ez al da jakinduria boterea ematen duen ezaugarrietako bat? Orduan, benetan boteretsuak direnek gure boterea ere kontrolatzen dute. Hala ere, horretan gehiegi murgildu aurretik, aipatutako beste mugak pixska bat ikutulandu nahiko nituzke.

Esan bezala, enpresek, multinazionalek eta gobernueak gure bizitzaren oinarrizko eta ez hain oinarrizko ezaugarri ugari moldatzen dituzte nahi erara, baina nola egiten dute hau? Nola dira gai hainbeste pertsonen gain hainbesteko eragina izatekoa? Izan ere, enpresek sortzen dituzte guk egunean zehar erabiltzen ditugun gauza ugari. Adibidez: arkatzez idatzi edo marraztutakoa ezabatzeko erabiltzen dugun borragoma. Horrek erosi edo lor ditzakegun produktuak asko mugatzen ditu. Gure kanpo askatasunari dagokionez, nik asko erabiltzen dudan adibide bat galtzak dira: niri asko gustatzen zaizkit galtza piratak eta oso zailak dira aurkitzen. Azken urte hauetan edozein arropa dendatara joanez gero udaratik gertuko hilabeteetan, izter erdia bistan uzten duten galtzak besterik ez dituzu aurkitzen. Eta barne askatasunean eragiteko duten modua iragarkiak dira. Leonardo Dicapriok ere esaten du *Inception* pelikulan: "Zein da munduko parasitorik iraunkorrena? Bakteria bat? Birusen bat agian? Sabeleko zomorroak? Ideia bat. Iraunkorra. Oso kutsakorra. Behin ideia bat guztiz sartzen denean garunean, ia ezinezkoa da guztiz ezabatzea. Ideia bat ondo barneratzean, ondo ulertzean... Itsatsi egiten da." Hori bera da iragarkiek egiten dutena: ez dute bakarrik produktu bat aditzera ematen, lehen ez genuen behar bat sortzen digute eta kontsumismora bultzatzen gaituzte benetan behar ditugun gauzak alde batera utziaraziz. Honek guztiak bultzatzen nau honako galdera hau botatzera: Guztiz aske eta autonomoki hartzen ditugu erabakiak? Eta are gehiago, era aske eta autonomoan hartu nahi ditugu erabakiak?

Galdera hau buruan dudalarik, Kant filosofo prusiarraren esaldi batekin amaitu nahiko nuke testua: "SAPERE AUDE", ausartu zaitez zure kabuz pentsatzen.

PRO LIBERTATE PATRIA GENS LIBERA ESTATE

Haizea Berrozpe

Askatasunaz jarduten gabiltzan honetan, Ameriketako Estatu Batuak aipatu ditugu, Hego Amerika aipatu dugu, frantziako filosofo den Sartre aipatu dugu, baina gurean, nork egin zuen ezer askatasunaren alde? Noiz? Zergatik? Jarraian, Nafarroara egingo dugu bidaia, Iruñeatik 30 km dagoen herrira, hain zuzen. Obanosera.

Obanoseko infanzoneak

Obanoseko infanzoien lema zen. Talde hau XII eta XIV mendeetan zehar elkartu ziren Obanosen, horregatik haien izena; taldea Nafarroako hidalgoek, kleroak, zaldunek eta goi nekazariek osatzen zuten. Ohiturak, eskubideak eta justizia defendatzen zuten Nafarroako Erreinuan, monarken botere gehiegikeriaren aurka eginez.

Lema honek bi itzulpen ditu: “en nombre de la patria, sed libres” zen eta bigarrena “estad preparados, gente libre, a favor de la libertad de la patria” zen. Bi aukera hauek latinaren bariante ezberdinak daudelako, aditz berdinerako, gertatzen da.

Herriaren askatasuna eta eskubideak defendatzen zituztenez, askotan jazarriak izan ziren, eta honen ondorioz izkutuan lan egitea erabaki zuten.

Liburu kritika

Las voces del desierto

Eider Barbulo

Marlo Morgan 1937an jaio zen Iowan. Medikuntza ikasi zuen eta 25 urte igaro zituen medikua izaten. Horren ostean, mediku lanak utzi eta idazle lanetan hasi zen burubelarri.

Morganen lehenengo nobela "Mutant Message Down Under" gaztelerara "Las Voces Del Desierto" deitua benetazko historio bat bezela publikatutako eleberria da. Bertan aborigen australianoekin "walkabout" batean edukitako esperientziak kontatzen ditu. Paradijikoki, eleberriak munduan zehar arrakasta handia lortu zuen, Australian izan ezik.

Liburu honetan Marlo Morganek Australiatik aborigen australiarrekin egindako bidaia kontatzen du. Tribuak beraren bidez mezu bat bidaltzen du gure mundura, mundua ez suntsitzeko eta naturatik eta espiritualitatetik urrunduta dagoen gure bizitzeko modu artifiziala aldatzeko. Marlo Morganek liburuan kontatzen du dena erritualen bidez eta musikaren bidez egiten zutela.

Liburuan ikusi dezakegun moduan bidaia aurrera doan einean askatasunari buruzko Morganen ideia pixkanaka aldatzen joaten da. Hasieran askatasunari buruzko bere ideiak ez du zerikusirik bidaiaren bukaeran duen ideiarekin. Izan ere, Morganek bidai horretan ikusten du nola gizakiok bizitza artifizial eta kontrolatu batean bizi garen, ekonomia kapitalistaren menpe. Nola gure bizitza, mendebaldekoena, lehia bukaezin bat den eta askatasunarekik o dugun ideia erabat okerra den. Bidaian asko ikasten du bizitzari buruz eta nola izakiok badugun askeak eta onak izateko gaitasuna baina nola kapitalismoaren ikur den kontsumoak askatasun faltsu bat eskaintzen digun.

CAPTAIN FANTASTIC

Pelikularen kritika

Loraine Lertxundi

“Captain Fantastic” 2016an Estatu Batuetan argia ikusi zuen filma da. Zuzendari eta gidoilaria Matt Ross da. Gizon hau, zuzendaria izateaz gain, aktorea ere bada eta “American Psycho” filmean ikus dezakegu. Viggo Mortensen, “Captain Fantastic” filmaren protagonista, Oscar sari baterako izendatua izan zen, gainera filma beste 43 saritarako izan zen nominatua eta 14 irabazi zituen.

Film honen puntu nagusienetako bat pertsonaien konplexutasun eta ideologiak dira. Ben Cash, Viggo Mortensenek protagonizatua, ama galdu berri duen familia ugari baten aita da, filmaren protagonista nagusia izateaz gain. Gizon honek bere inguruko normatibatik ateratzen diren ideiak defendatzen ditu bere emaztearekin batera eta beraien seme-alabak hezteko modu berriak bilatzen dituzte: umeak ez dituzte eskolara eramaten baina asko irakurrarazten diete, fisikoki asko prestatzen dituzte eta beraien galderak inolako beldurrik gabe erantzuten dizkie, adibidez, berain amaren heriotza azaltzeko nola suizidatu zen esaten die nahiz eta horrek eragin kaltegarria eduki dezakeen.

George Mackay aktoreak Bodegan seme helduaren papera egiten du. Oso mutil azkarra da, eta nahiz eta inoiz ez den eskolara joan bere aitaren irakasteko moduek efektu ona dutela hautematen dugu Estatu Batuetako unibertsitate garrantzitsu guztietan onartua izaten denean. Hala ere, bere aitak ez du nahi unibertsitatera joatea baina berak konbenzitzea lortzen du. Bestalde, filmean bere adineko neska gazte batekin interaktuatzen ikusten dugu eta bere ahalmen sozialak neskarenak baina txikiagoak direla konturatzen gara, nahiz eta berak maila intelektual altuagoa izan.

Zaja, Shree Crooks, alaba txikiena da eta bere adinarentzat oso aurreratua dagoela erakusten digute. Neska honi animaliak disekzionatzea gustatzen zaio eta honek beraren familia deskonzertatzen du. Hala ere esperimentatzen uzten diote. Vespy, Annalise Basso, eta Kyelir, Samantha Isler, bigarren eta hirugarren alabak dira, oso neska azkarrak eta ausartak dira eta hizkuntza desberdin asko hitz egiten dituzte.

Amaren gurasoak, hau da, umeen aiton-amonak, Benen gauzak egiteko moduaren aurka azaltzen dira eta beraien alabaren heriotzaren errua botatzen diote Reillian, Benen semeetako batekin batera, eta aitaren aurkako haserre horretan aiton-amonekin geratzen da bizitzen denboraldi batez.

Amaren anaia eta haren familia ere Benen umeak hezteko moduaren aurka daude, eta momentu batean esan egiten diote, beraren ideiak defendatzeko bikotearen seme nagusia deitzen du eta jakin beharko lukeen galdera bat egiten dio, honek ez du erantzutea lortzen, beraz bere seme txikienetako bati, Nairi, galdera bera egiten dio eta honek ongi erantzuten du nahiz eta askoz ere gazteagoa izan.

Filmean eztabaidatutako gai nagusietako bat hezkuntza sistema da, Benek eta bere emazteak argi azaltzen dute hezkuntzarekiko aurkako jarrera eta beraien metodo propioak erabiltzen dituzte eta honek onura eragiten du bere seme-alabengan. Bestalde, umeek ez dute haurtzaro normal bat eduki eta oso azkar heldutzen direla ematen du eta honek kalte batzuk eragiten dizkie; Bodeganen erlazionatzeko arazoetan ikusi dezakegu, eta mundu errealera ohituak ez daudela ematen du. Hau da, ume hauek dena dakite munduari buruz, besteek baino gehiago, baina zerbait falta zaie, beraiek dena kanpotik ikusten dute, baina beraien errealitatea desberdina da, aitak uste du denerako prestatzen dituela, baina ume hauei errealitatea bizitzea falta zaie.

Beste gai bat umeei gauzak esateko modua da, gure inguruan hainbat gai “tabu” ditugu, batez ere txikiak garenean oso gainetik aipatzen dizkigutenak, adibidez sexua, heriotza... eta honek gai hauei garrantzia handia ematea edota beldurra hartzea ekartzen du, baino Benek ez du hori egiten, bere seme-alaben galdera guztiak erantzuten ditu, adibidez beraien amaren heriotzari buruz hitz egitean edo bere alaba txikiari erlazio sexualei buruzko galdera bat erantzutean.

"Jakintusak ez du esaten pentsatzen duen guztia, baina esaten duen guztia pentsatzen du."

Gabriel Hilal

Nire iritziz lehenengo esaldiak adierazten du jakintsuak ez duela esaten asko dakiela, baizik eta entzuten geratzen da gehiago ikasteko. “Hitz egiten dugun bitartean besteei dakiguna adierazten diogu, entzuten dugunean berriz, ikasten ari gara". Inozoak asko dakiela pentsatzen du eta besteei adierazi nahi die haiek pentsa dezaten jakintsua dela. Jakintsuak badaki jakintsua dela beraz ez die besteei esan behar. Gainera, bigarren esaldiak esaten duenaren arabera adimentsua dena hitz egin baino lehenago pentsatu egiten duela da; horrela ez du txorakeriarik esango. Bestetik, ez du pentsatzen duen guztia esaten, egokia dena baizik.

"Jakintsuak ez du dakien guztia esaten. Inozoak ,berriz, ez daki zer esaten duen."

El sabio no dice lo que piensa, pero piensa todo lo que dice.

El sabio no dice todo lo que sabe. En cambio, el necio dice lo que no sabe.

Pelikula kritika

Into the wild

(Hacia rutas salvajes)

"Zoriontasuna benetakoa da besteekin gozatzen denean"

"La felicidad es real solo cuando es compartida"

Mikel Otaduy

Zure ustez, non aurki daiteke askatasun handiagoa; naturako bakardadean edo gizartean? Eta zoriontasuna?

Galdera honi erantzun bat ematen dio jarraian iruzkindu dudan pelikulak

Hacia rutas salvajes, 2007-ko pelikula estatubatuar bat da, Hemile Hirsch da pelikula honen protagonista nagusia, Alexander Supertramp-en papera eginez. Pelikula estatubatuar honek 2 Oscar irabazi zituen.

Pelikula honetan ikus dezakegu nola Alexander Supertramp bere inguruko gizarteaz nazkatuta dagoen. Berak ikusten du, gehienbat bere aita eta amarengan, sozietateak beti gauza materialak bilatzen dituela eta Alexander horretaz nazkatuta dago. Adibidez, graduatzen denean bere unibertsitateko lehenengoetakoa geratzen da, eta bere aitak eta amak zoriontzeko, merkatuan dagoen kotxerik garestienetariko bat erosten diote, eskuminak eman ordez: honek zergatik erosi dioten galdetzen die, berak kotxe bat zuelako, eta momentu horretan konturatzen da, bere aitak eta amak nahi dutena beste pertsonek bere semea kotxe garesti batekin ikustea dela.

Momentu horretan Alexander-ek bere diru guztia erretzea eta motxilero bezala bidai bat egitea erabakitzen du. Bidai horretan jende mordoa ezagutzen du. Haien artean Tracy Tarto, Wayne Westerberg, Ron Franz edo Jan Burres. Hauek asko lagundu zuten bere bidaian; askok janaria eman zioten, beste batzuk, Waynek bezala, diru pixkat irabazteko lana eman zioten eta beste batzuk Ronek bezala beraien etxean sartzen utzi zioten atseden hartzeko. Bidaian topatutako pertsona bakoitzak gauza bat erakutsi zioten, adibidez Ron-ek gerrikoetako larruan marrazkiak egitea erakutsi zion.

Bere baidaiaren helburu fisikoa Alaskara iristea zen eta han egun batzuk pasa ondoren bueltatzea zen. Hara joan nahi zuen, gizartetik hurrun egoteko eta bera bakarrik bere pentsamenduekin egoteko. Baina berak zuen beste helburu bat, bere aita eta amaren pentsatzeko modua aldatzea zen, hau egiteko kontziente zen beraiei mina egin beharko ziela eta hori egiteko, bere aita eta amari bera desagertua zegoela pentsarazi zien. Helburu hau lortu zuen baina bere beste helburua ez. Bere beste helburua, zoriontasuna Alaskan eskuratzea zen. Helburu hau ezin izan zuen eskuratu, eta konklusio batera iritsi zen. Konklusio hau bere azkeneko indarrak eginez idatzi zuen bere babeslekuko paret batean.

Konklusioa hondorengoa da ``La felicidad solo es real cuando es compartida´´.
Bukatzeko esan nahiko nuke pelikula benetan gertatu zen gertaera batean oinarrita zegoen. Christopher Johnson McCandless-en bidaian, zehazki.

HENRY DAVID THOREAU: ASKATASUNA BASOAN AURKITU ZUEN GIZONA

BY DALAI

Henry David Thoreau filosofo estatubatuarra izan zen. {1817/1862} Filosofo trasdentalista izan zen. Concorden jaio zen eta Harvardera joan zen zientzia eta filosofia arloetan graduatuz. Harvardetik itzultzean lan ugari izan zituen; adibidez bere anaiarekin eskola bat ireki zen eta itxi zuten bere anaia hil egin zenean.

28 urte zituenean baso batera joan zen eta Walden izeneko ibai baten ondoan bi urtez txabola batean bizi izan zen gizartetik urrun. 2 urte haietan ideologis bat garatu zuen. Bere ustez, zoriontsu izateko naturarekin kontaktuan bizitzea eta behar beharrezkoarekin bizitzea aski zen. Naturak introspekzio bat garatzea baimentzen du eta esaten zuen gizarte modernoak gure baitarako begirunea hutseratzen zuela.



Henry david Thoreau ez da bakarrik ezaguna bere bizitza sinpleagatik. Baita ere ezaguna da desobedientzia zibilaren inguruan hitz egin zuen lehena izan zelako. Liburu bat idatzi zuen Desobedientzia zibila izenarekin eta liburu horrek gero eragin handia izan zuen beste pentsalari famatuengan, adibidez, Marthin Luther King , Mahatma Gandhi... Azaltzen dena da gobernuari kasurik ez egitea baina modu pazifikoan. Adibidez, garai horretan AEB Mexikorekin gerran zegoen eta estatu batzuetan eklabutzaren aldeko legeak zeudenez pentsatzen zuen ados ez dagoen gauzetan ez diola bere gobernuari lagunduko maltzurkeriak egiten. Ideologi honengatik kartzelan egon zen.



Walden liburua Thoreauk idatzi zuen 1854ean. Liburu horretan kontatzen du nola 2 urte, 2 hilabete eta 2 egun pasatu zituen Walden ibaiko ertzetan etxola batean. Walden liburuak bi gai nagusi ukitzen ditu. Lehenengoa honela labur daiteke: naturarekin bizitzea da askea izateko modu bakarra eta bigarren gaia, aldiz, honela laburbildu daiteke: baliabide naturalak erabiltzerakoan bere arauak eta onurak ez ahaztea. Aipatu dugunez, transdentalista zen eta lortu zuen besteengan eragitea. Gainera, beste pentsalari batek bere Walden liburuan oinarrituta Walden 2 liburua idatzi zuen. Hala ere, esan beharra dago Thoreau ez zela Alaskara joan, Hacia Rutas Salvajes (Into the Wild) pelikulako protagonista bezala, eta horrenbestez bere lagunak bisitazera joaten zitzaizkion eta bera askotan joaten zen herrira janazia ekartzera.

Waldenen bizitako esperientziak errotik aldatu zuen bere mundu ikuskera. Berak egiten zuena zen fauna eta flora behatu eta hori dela eta, barazkijale bihurtu zen eta baita abstemioa ere.



IMAGINE

Abesti iruzkina.

By Pello Ibargoyen

Kanta honetan mundu utopiko bat deskribatzen zaigu; herrialderik gabe, posesiorik gabe, kontrola gaitzakeen erlijiorik gabe… Mundu honetan mundu guztia askea izango litzateke, baina ez da mundu ideal bat. Abestian bertan mundu guztiz baketsu bat bezala azaltzen bazaigu ere, nahiko garbi dago zer gertatuko litzatekeen.Gizakia berez izaki berekoia eta bekaizkorra da eta horregatik jakin dezakegu bakoitzak bere bizitza ahal bezala egin beharko balitz batak bestearen probetxu hartu beharko lukeela bizirauteko. Ondoren, interes komunek lotuta t aldeak sortuko lirateke babesaren eta kolaborazioaren bila. Talde ezberdinak sortuko lirateke: baketsuak, oldarkorrak, "espansionistak"... Talde horietako asko nomadak izango lirateke beste taldeekin izandako liskarrek bultzata eta beste asko sedentarioak izanda ere mugak erasoen bitartez zabaltzen ibiliko lirateke. Momentu horretan bertan inor ez litzateke askea izango eta inor ez litzateke bakean egongo. Horregatik da utopikoa abeslariak proposatzen duen mundu eder hori. Gizakia bera da gizakiarentzat perfektua den mundu bat zakarretara botatzen duena, baina ez dugu errurik, naturak erabaki duelako gu horrelakoak izan behar garela.

LETRA

Imagine there's no heaven
It's easy if you try
No hell below us
Above us only sky

Imagine all the people
Living for today

Imagine there's no countries
It isn't hard to do
Nothing to kill or die for
And no religion, too

Imagine all the people
Living life in peace

You, you may say I'm a dreamer
But I'm not the only one
I hope someday you will join us
And the world will be as one

Imagine no possessions
I wonder if you can
No need for greed or hunger
A brotherhood of man

Imagine all the people
Sharing all the world

You, you may say I'm a dreamer
But I'm not the only one
I hope someday you will join us

Imaginatu zerurik ez egotea
Erraza da sahiatuz gero
Infernurik ez gure azpian
Zerua besterik ez gure gainean

Imaginatu jende guztia
Gaurko bizitzen

Imaginatu herrialderik ez egotea
Ez da zaila lortzea
Arrazoirik ez hiltzeko edo erahiltzeko
Eta ezta erlijiorik ere

Imaginatu jende guztia
Bakean bizitzen

Zuk, zuk esan dezakezu ameslari bat naizela
Baina ez naiz bakarra
Espero du egunen batean zu ere izatea
Eta mundua bat izatea

Imaginatu posesiorik ez egotea
Ahal duzun galdetzen diot neure buruari
Gutiziaren edo gosearen beharrik ez
Gizon arteko anaitasuna
Imaginatu jende guztia
Mundua partekatuz
Zuk, zuk esan dezakezu ameslari bat naizela
Baina ez naiz bakarra
Espero du egunen batean zu ere izatea
Eta mundua bat izatea

"I Want To Break Free"

Noah González

I want to break free
I want to break free
I want to break free from your lies
You're so self satisfied, I don't need you
I've got to break free
God knows, God knows I want to break free

I've fallen in love
I've fallen in love for the first time
And this time I know it's for real
I've fallen in love, yeah
God knows, God knows I've fallen in love

It's strange, but it's true
I can't get over the way you love me like you do
But I have to be sure
When I walk out that door
Oh, how I want to be free, baby
Oh, how I want to be free
Oh, how I want to break free

But life still goes on
I can't get used to living without, living without
Living without you by my side
I don't want to live alone, hey
God knows, got to make it on my own
So, baby,can't you see?
I've got to break free
I've got to break free
I want to break free, yeah
I want, I want, I want, I want to break free

Aske izan nahi dut. Zer zuen buruan Fredy Mercury-k?

Abesti hau Queen taldearena da. Queen ikaragarri famatua den taldea da eta orain dela gutxi beraiei buruzko pelikula bat egin zuten. Abesti hau aukeratu dut askatasunarekin zerikusia zuen abestia aukeratu behar genuela entzuterakoan berehala etorri zitzaidalako burura.

Esanahiari begira, jendearen artean eztabaida handia egon da, batzuk Freddiek homosexuala zela esateko idatzi zutela diotelako, beste batzuk emakumeen eskubideen aldeko abestia dela diotelako eta beste batzuk bakoitzak nahi duen bezala izateko askatasunari buruz hitz egiten duela diotelako.

Nire ustez ez zen Freddieren homosexualitatea ezagutarazteko, armairutik ateratzeko modu bat bezala, nagusiki ez zuelako berak idatzi, John Deaconek baizik. Hori esanda ere, izan daiteke gaiarekin joatea eta jende guztia den bezala izateko askatasuna izan behar duela esatea nahi, garai horretan gauza asko gaizki ikusita zeudelako.

Emakumeen eskubideen aldeko abestia izatea izan daiteke bideoan guztiek emakumez jantzita agertzen direlako eta etxeko lanak egiten. Kasu honetan abestiarekin esan nahiko zuten emakumeak aske izango behar luketela beraien bizitzarekin nahi dutena egiteko, soilik etxeko andreak izatea behartuta izan beharrean, garai hartan mugimendu feminista oso gaztea zelako eta matxismoa askoz indar gehiago zuelako.

Esanahia bakoitzak nahi duen bezala izateko askatasuna izan behar duela izatekotan nahiko zentzu handia izango luke, esanahi orokorrago bat emango liokeelako, lehen aipatutako bi gaietan eta beste zenbaitetan oinarrituta egotean. 70. hamarkadan oraindik gizartea oso pentsamolde itxia zuen eta ondorioz norbaitek desberdina zenean tratu txarra jasotzea zen ohikoena, beraz oso onuragarria izango litzateke horrelako mezua zuen abesti bat izatea. Esandako guztia kontuan hartuta, argi dago ez duela esanahi finkorik eta nahiko erlatiboa dela, baina askatasunarekin erlazionatuta dagoela argi dago.

I'm Free abestiari buruzko iruzkina.

Eider Barbulo

Gizakiok independiente eta askeak gara, edo hala uste dugu. Galdera hau egitean galdera baliogabe bat dela usteko duzu. Nola eduki diezaiokegu beldurra askatasunari? THE WHO taldearen *"I'M FREE"* kantan ondo islatzen dute hori. Kanta honetan adierazi nahi dena libre izatea posiblea dela baina inor ausartzen ez dela da. Kantan bertan ikusi dezakegu nola batek ausardia eskatzen dion besteari eta hark hain

erraza ez dela esaten dio pertsona hark askatasunari beldur diola interpreta dezakegu, pertsona horrek munduko pertsona gehienok bezala beldur da zer aurkituko duen, askatasunari beldur da eta askea izaten sailatu ordez, oku egiten dio aukera horri eta zailegia dela dela esaten du.

Ez da askatasunaren atea zeharkatzera ausartzen, bere bizimodu eroso horretan jarraitu nahi du. Kantak esan

bezala, mesiasak atea seinalatu zuen baina inor ez zen ausartu tenplutik ateratzen.

Esan nahi duena da, nahiz eta askatasuna gure muturren aurrean ezarri, ate hura zeharkatzera ez da iñor ausartuko, beldur direlako atzean aurkitu dezaketanarekin.

THE WHO taldeak ederki plasmatzen du kanta hontan askatasunari beldurra diogunaren ideia eta hori dela gizakiok dugun beldur handienetariko bat.
Eta orain hasierako galdera berdina galdetzen badizut, zuk zer uste duzu, **ASKATASUNARI BELDURRA AL DIOGU?**

"I'm Free"

The Who

(original)

I'm free

I'm free

And freedom tastes of reality

I'm free

I'm free

And I'm waiting for you to follow me

If I told you what it takes to reach the highest high

You'd laugh and say: Nothing's that simple

But you've been told many times before, Messiah's pointed to the door

And no one had the guts to leave the temple

I'm free

I'm free

And I'm waiting for you to follow me

I'm free

I'm free

And I'm waiting for you to follow me

How can we follow?

How can we follow?

(gazteleraz)

Yo soy libre

Yo soy libre

Los gustos y la libertad de la realidad

Yo soy libre

Yo soy libre

Y estoy esperando a que me siga.

Si te dijera lo que se necesita

para alcanzar el máximo más alto,

Te rieras y decir "nada es tan sencillo"

Pero le han dicho muchas veces antes de

Mesías señaló a la puerta

Y nadie tuvo el valor de abandonar el templo!

Yo soy libre

Yo soy libre

Los gustos y la libertad de la realidad

Yo soy libre

Yo soy libre

Y estoy esperando a que me siga.

Mugitu harriak. Ekhi Aizpurua

Askatasuna hainbat ikuspegi ezberdinetatik ikus daiteke. Nik gertukoa dudan askatasunaren ikuspuntu bati buruz hitz egingo dut. Oso gustuko dudan abesti bat aukeratu dut, oso egokia dela iruditzen zait gai hau islatzeko. Esne Beltza taldearen Mugitu Harriak aukeratu dut.

Abesti honetan euskal presoen askatasuna eta etxeratzea errebindikatzen du. Presoen ordez "harriak" hitza erabiltzen du hauek mugitzeko zailtasunarekin konparatuz. Abestian bertan ere hainbat espetxe aipatzen dira, adibidez, Puerto, Fresnes, Alacant, Navalcarnero... Senitarteko eta lagun asko egon gara lekuotan.

Nahiz eta ez iruditu euskal preso asko daude espetxean oraindik ere eta abestiaren irudietan ikus daitekeen bezala izugarrizko jende pila biltzen da hauen askatasuna aldarrikatzera, edo gutxienez, gertuago ekartzera. Badago jende asko kasu oso larrietan dagoena eta izugarrizko bidaiak egin behar dituenak bere senitartekoarekin, asko jota, 2 ordu egoteko soilik. Gutxi izango ez balitz, hainbat auto istripu izaten dira bidaia hauetan.

Honekin guztiarekin esan nahi dudana zera da, horrelako abestiek eta horrelako pertsonek asko laguntzen dutela, jendea jasaten ari den egoeraz konturatzen.Denon artean haien aske izateko eskubidea aldarrikatu behar dugu!

Nire ustez pertsona bat askea da nahi duena egiteko eskubidea duenean. Beste arrazoiren batengatik ezin badu egin edo ekintza aurrera eraman beste nolabait lortu beharko du. Gauza da behar duen hori lortzeko ere baliabide batzuk behar dituela, bati-bat aske izatea. Baina ezin badu aske izateko behar deun hori lortu bere egoera dena delako, aske da?

Ados egongo gara guztiok, gaur egungo sistema diruan oinarritua dagoela eta dirua duela helburu. Orduan dirurik ez duen pertsona batek, nahiz eta oztopo fisikorik ez eduki, aske izan daiteke?

Nire ustez pertsona bat ez da inoiz guztiz askea izango, beti egongo da pertsona, sistema edo arau batzuen menpe, nahiz eta edonola ere gizartetik aislatzen saiatu.

Egia da ere askotan aske sentitzen garela, ez dugula inongo presioa edo loturarik sentitze, baina, baina posible alda beti horrela bizi eta sentitzea?

REDEMPTION SONG

BY ANE ZURIARRAIN



Redemption Song kanta Bob Marley abeslari jamaikarrak idatzi zuen 1979an. Bob Marleyen abestiak dimentsio filosofiko handia du. Bere ideiak musikaren bidez transmititzen zituen.

Mundu hobe batean sinisten zuen eta giza eskubideak defendatzen zituen.

Abestitik gustatu zaidan zatia “ Nadie mas que nosotros puede liberar nuestra mente”. Zati hau egia handi bat esaten duelako gustatzen zait eta gu garelako gure buruaren gidariak, hau da gu garela gure burua liberatu dezakegun bakarrak.

LETRA:

Unos viejos piratas, sí, me robaron,
me vendieron a los barcos mercantes.
Minutos después, me capturaron
del pozo sin fondo,
pero mi mano se fortaleció
por la mano del Todopoderoso.
Seguimos adelante en esta generación,
triunfantes.
¿Me ayudarás a cantar
estas canciones de libertad?
Porque son lo único que alguna vez he tenido,
canciones de redención.
Canciones de redención.
Emancipaos de la esclavitud mental,
nadie salvo nosotros mismos
puede liberar nuestras mentes.
No tengáis ningún miedo a la energía atómica,
porque ninguno de ellos puede detener el tiempo.
¿Durante cuánto tiempo matarán a nuestros profetas
mientras nosotros nos apartamos y miramos?
Algunos dicen que solo es una parte de ello,
tenemos que cumplir con el libro.
¿Me ayudarás a cantar
estas canciones de libertad?
Porque son lo único que alguna vez he tenido,
canciones de redención.
Canciones de redención.
Canciones de redención.
Emancipaos de la esclavitud mental,
nadie salvo nosotros mismos
puede liberar nuestras mentes.
No tengáis ningún miedo a la energía atómica,
porque ninguno de ellos puede detener el tiempo.
¿Durante cuánto tiempo matarán a nuestros profetas
mientras nosotros nos apartamos y miramos?
Algunos dicen que solo es una parte de ello,
tenemos que cumplir con el libro.
¿Me ayudarás a cantar
estas canciones de libertad?
Porque son lo único que alguna vez he tenido,
canciones de redención.
Lo único que he tenido,
canciones de redención.
Estas canciones de libertad
Canciones de redención.

Bob Marley

Denborapasa

Aimar Etxeberria

Jendeak asko hitz egiten du alkoholak hiltzen dituen pertsonei buruz ,baina ez honengatik sortzen diren pertsona guztiei buruz.

Zenbat filosofo behar dira bonbilla bat aldatzeko?

–Hiru: bat bonbilla aldatzeko eta beste biak bonbilla existitzen denentz eztabaidatzeko.

Non jaten dute filosofoek janaria?

Platón batean

LUBERRI INSITUTUA

2018-2019 IKASTURTEA

BALIO ETIKOAK

IRAKASLEA: OIHANE GARMENDIA